

Elkarrizketa. Xabin Mujika. Lehengusua

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 18-20.

Gerran ihesean ibili ondoren etorri ziren gure etxera, Etxeberritara. Larramendi kaleko 17. zenbakian bizi ginen. Anttoni eta nire ama –koinatak ziren, Martinen aita eta nire ama anai-arrebak– oso ondo konpontzen ziren, eta amak -alarguna zenetxean hartu zituen. Han bizitu ziren Caracaseran joan arte, "hasta el 30 de septiembre del 97". Ondo gogoratuko ez dut ba? gau guztia kafea hartzen pasatu genuen. "Benga Maria" eta tori kafea, "benga Maria!"... eltzeka kafe hartu genuen. Ni treintaidosian jaioa niz, Martin baino hamaika urte beranduago. Nire aita ordezkotza egin zuen hark. Nik beti ikusi dut Martin nire aita bezala. Ni gehiena gogoratzen naizena, grabatua daukatena zera da: Etxeberritako eskola nazionalan ibiltzen nintzen Axintxioneko maixuarekin. Egun batean haren zain geundela okurritu zitzaidan esatea "hara, hemen degu gure aitona". Gure artean zegoen batek alde egin zuen eta "se chivó": maisuari esan zion nola nik aitona deitu nion. Ni egin nintzen beldurtu eta joan nintzen korrika Xebastian Beriainen etxera, aldamera –hura zegoen tranbiak hankak moztuta–. Nire artean pentsatu nuen norbait bidaliko zutela nire bila, eta "efectivamente", hartu zidaten zarpatik, eraman ninduten eskolara, eta maixuak eman zidan ikaragarritzko paliza. Nik ze min egin ote nion aitona deitzeagatik? Etxera joan nintzen eta Martini esan nion "hau eta hau eta hau gertatu zait, izugarritzko paliza eman didatela". "Zer?", hark, "bihar La Sallera!". Eta hurrengo egunean Martinek hartu eta La Sallera eraman ninduen; nonbait hango maixuekin konfidantza bazuen, egin zidaten esamin bat, eta, bastante aurrera nengoenez, sartu ninduten "directamente" "terceran".

Ni oso saiatua nintzen eskolan; eta berak duroa ematen zidan dena ondo ateratzeko. Duru harekin ateratzen nintzen beti aurrena. **Duru** ez zidanean eskaintzen hogeitamargarren ateratzen nintzen igoal. Horrek sutu egiten zuen Martin: jartzen ninduen belauniko eskuetan kriston liburu pila hartuta. Zorrotza zen oso; bere buruarekin ere zorrotza zen hura, e?

Han hiru urte ikasi ondoren Laborden hasi nintzen lanean. Martin ere Laborden ibili zen, aurrena linternoari laguntzen. Baina ni Laborden sartu nintzenerako, Martin zegoen "jefe de correspondencia". Bi lan horiek egin bitartean hiru urte egin zituen soldadutzan. Eta hara; Martinek, bere aitak eta nik leku berean egin dugu soldadutza: "En El Rincon del Bedit", Ceuta eta Tetuanen artean. Gogoratzen naiz nola joan ziren. Zenbat negar egin ote nuen nik, jo!. Donostin sartu zituzten merkantzia batean, eta gu hemen, Etxeberritan, trenan noiz pasako zain. Pañuluakin-eta famili guztiak agurtu genuen. Haik negarrak! Garai hartan Afrikara joatea beste mundu batera joatea zen. Soldaduskan ere antiespañol bezala zegoen fitxatuta, baina "cabo primera" izatera iritsi zen.

Nonbait Martinek handik bidalitako karta Don Manueli egin zitzaion gustatu eta handik etorri zenean sartu zuten ofizinan.

Bizikletan egiten zuen etxetik lanerako bidea, bizikleta berde batean. Etxean geundela sumatzen genuen gora bazetorrela, eta nik trapu batzuk hartu eta garbitzera. Agindu beharrik ez zeukan! Gero Venezuelara joan zirenean niri utzi nahi zidan bizikleta; baina, bizikleta haundia eta ni oraindik txikia... Gero, bi urtera edo, handik dirua bidali zidan. Izugarrizko bizikleta erosi nuen, karrerakoa. Orduan hasi nitzen bizikletan korritzen.

Baina etxean nik beti ikusten nuen estudiatzen, "por CCC". Holako pilaaa zeuzkan, armarioak denak liburuz josiak. Egunero ekartzen zion karteruak zerbait. Idatzi ere beti aritzen zen idazten. Hura zera zen: kolumnista. Andoingo kronikak idazten zituen Diario Vascon.

Martinek futbolian ere jokatzen zuen. Eta hark nahi zuen, bere aita bezala, ni korrikari ibiltzea. Indarra hartzeko arraultzak ematen zizkidan, arraultzak eta platanuak, Nik hamalau urte nituela korritu nuen karrera bat, "el circuito de los puentes" Amaran. Hemendik atera ginen Ramon Huizi, Juan Mari Artola, Joseba Barandiaran... horiek denak. Denak erretiratu egin ziren, ni ez. 205 atera ginen, eta ni 28garren gelditu. Martin, Inazio Garmendia difuntua, Mariano Arberas difuntua... izugarrizko koadrila joan ziren. Ilusio ikaragarria egin zion.

Beste anekdota bat: Martinek katu bat domatua zeukan. Zeukan katu bat politagoa... "tak!" egiten zuen hola, mahai gainean, eta katua mahai ondoan zegoen armairura igotzen zen; "tak!" beste kolpe bat ematen zuen, eta bizkarrera, Martinen bizkarrera. "Tak!" hirugarrengoa handik platerera, han utzi zizkion arrastoak jatera. Han jaten zuen. Caracasera joan zenean, berak aginduta, katua zaku batean sartu eta bere andregaiaren eraman nion Billabonara.